



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ERAGIN

LINGUISTIKOAREN

EBALUAZIOA

AURKIBIDEA

1. ABIAPUNTUA

2. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOAREN XEDEA

3. PRINTZIPIO, KONTSIDERAZIO OROKORRAK

- 3.1 Zeharkakotasuna
- 3.2 Zuhurtzia eta prebentzioa
- 3.3 Lurralde-antolaketa hizkuntzen antolaketa aintzat hartzea
- 3.4 Arnasguneen kategorizazioa
- 3.5 Arnasguneen trataera berezia
- 3.6 Arnasguneen eskualde-buruak

4. ARAUDIAREN EDUKIAK:

5. EGITASMOAREN IRISMENA:

6. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA:

- I. Egitasmoa eta garatuko den tokiaren testuingurua aztertu
- II. Proiektuak hizkuntza txostena behar duen zehazteko galdetegi laburra bete eta baiezkotan jarraitu beharreko urratsak zeintzuk izango diren zehaztu
- III. Proiektu/jardueren bilakaera indizea kalkulatu, hala baldin badagokio
- IV. Eragin linguistikoaren ebaluazioaren galdetegi zehatza bete eta indizea kalkulatu
- V. Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete eta hobetzeko neurriak identifikatu
- VI. Neurri zuzentzaileak proposatu
- VII. Txostena prestatu:
- VIII. Jarraipen batzordeak hizkuntza-txostena baloratu, eta iritzia eman
- IX. Jarraipen fitxak bete eta jarraipen batzordeak baloratu

7. JARRAIPEN SISTEMA:

- 7.1. Jarraipen batzordeko kideak
- 7.2. Jarraipen batzordearen funtzionamendua
- 7.3. Arauak eta proiektuak garatzeko plangintza prozesuan kontuan hartu beharreko hainbat alderdi

8. ERANSKINAK:

- Lehen eranskina: Galdetegi laburra (II. urratsa)
- Bigarren eranskina: Bilakaera indizea (III. urratsa)
- Hirugarren eranskina: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren galdetegia betetzea eta indizea kalkulatzeko (IV. urratsa)
- Laugarren eranskina: Funtsezko alderdien ebaluazioa (V. urratsa)
- Bosgarren eranskina: Neurri zuzentzaileak (VI. urratsa)

1. ABIAPUNTUA

Udalerrri euskaldunak euskaldunen proportzio handia duten udalerrriak dira, euskaraz egunero normaltasunez eta naturaltasunez bizi direnak. Haietan euskarak bete ahal ditu edozein hizkuntzak betetzen dituen funtzioak: lana, familia bizimodua, lagunartekoa, administrazioarekiko harremana... Proportzioz euskaldunak gehiago diren udalerriotan, herritar askok euskara naturaltasunez erabiltzen dute beren komunikazio-behar gehienetarako. Horregatik esaten da udalerrri euskaldunak arnaguneak direla gure hizkuntzarentzako.

Hizkuntza batek, biziko bada, bera nagusi den lur eremuak behar ditu, arnaguneak behar ditu. Bere funtzio guztiak mugarik gabe, askatasunez, bete eta garatzeko lekuak behar ditu. Eusko Jaurlaritzak egindako Euskara 21 txostenean ere nabarmentzen du hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar dituela: *«Arnagune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitza, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan»*.

Duela urte batzuk arnaguneak ziren udalerrri euskaldunak. Baina gaur egun udalerrri euskaldun batzuk arnagune izatetik urruntzen ari dira, oraindik ere arnagune izateko baldintza betetzen badituzte ere. Udalerrri euskaldunen egoera soziolinguistikoaren bilakaera aztertuta, argi ikus daiteke udalerrri ez euskaldunetan euskarak izan duen berpizkundea ez dela errealitatea gune euskaldunagoetan. UEMAk 2014an egindako azterketak argi erakusten du bereziki azken hamar urteotan udalerrri euskaldunetako egoera soziolinguistikoa atzeraka ari dela. 2001etik 2011ra bitartean, oro har eta indizea (euskaldunak + ia euskaldunak / 2) %70etik gora duten udalerrriak aintzat hartuta, 3 puntu pasatxo egin du behera euskararen ezagutzak berak.

Azterketa eta hausnarketa bat baino gehiago egin dira, jaitsiera horren faktoreak ezagutzeko helburuz. Gaindegiak 2015ean egindako azterketa sozioekonomikoaren emaitzek etxebizitza parkearen eta egoera soziolinguistikoaren arteko harreman zuzena ondorioztatu zuten, besteak beste. Noski, udalerrri bateko egoera soziolinguistikoan eragiten duen faktore bakarra etxebizitza parkearen bilakaera ez dela jakin badakigu, biztanleriaren egunerokoan eragiten duten faktore guztiek dute gutxi asko gune bateko egoera soziolinguistikoan eragiteko gaitasuna: faktore soziokulturalak, faktore sozioekonomikoak... soziologia bera aztertuko beharko litzateke maiz hizkuntzaren bilakaeraren nondik norakoak ongi ulertzeko. Baina egin diren azterketa guztietatik eta udalerrri euskaldunetan hizkuntzaren normalizazioan aritu direnen esperientziak zerbait erakutsi badu, honakoa izan da: hizkuntza politikatik kanpo dauden politikak dira hizkuntzarengan gehien eragiten duten politikak. Hizkuntza politikatik euskararentzat espazioak irabazteko neurriak hartzen ari garen bitartean, bidezidorrak eraikitzen ari garen bitartean, gainerako politikek hizkuntzarengan

oso kaltegarriak izan daitezkeen erabakiak hartzen dituzte, autopistak eraikitzen dituzte alegia. Eta ondorioa ere oso argia da, alferrik ari gara euskara zerbitzuetatik bakarrik. Euskarak zeharlerrotasuna behar du aurrera egingo badu.

Hausnarketa horretatik abiatuta, udalerrri euskaldunetan hizkuntzarengan eragin negatiboa izan zezaketela uste genuen mota guztietako proiektuak aztertzeko beharra ikusi zuen UEMAK. Eta modu horretan eman zitzaion, lehenengoz Euskal Herrian Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa tresna sortzeari bidea.

Lehen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko tresna diseinatzerako orduan, Galesen horretarako erabiltzen zen tresna (*Planin and the Welsh Language the way ahead*) eta Ingurugiroan duen eragina neurtzeko erabiltzen den metodoa hartu ziren aintzat (*Metodologia para los Estudios de Impacto ambiental SIN CANTER*).

Eragin Linguistikoa ebaluatzeko (ELE) tresna sortu ondotik, bere eraginkortasuna eta balioa egiaztatu ahal izateko, tresna praktikan jartzea izan zen hurrengo urratsa. Hori horrela, hiru eskalatako planetan aplikatu zen ELE, Tolosaldean Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planean, Orioko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrean eta Baztango Aroztegia Udalerriz Gaindiko Plan Sektorialean.

Eragin linguistikoaren ebaluaziorako tresnaren marko teorikoa lantzetik praktikarako saltoa eman zen lehen ariketa horiekin eta emaitza guztiz positiboa izan zela baieztatu ahal izan zuen UEMAK. Une garrantzitsu bat markatu zuen euskararen normalizaziorako norabidean, finean, lan-molde berri baterako bidean lehen urratsa izan zela iritzi baitzion. Lehen aldiz diziplina anitzeko adituak elkarlanean aritu ziren hizkuntzaren inpaktua aurreikusten eta hizkuntza zeharlerrotasunean landu behar diren garrantzia agerian utzi zuen praktika hark.

Praktika horiek egin eta gero, tresnaren balioa ezbaian jarri gabe, ELE ebaluazio lan-taldeetan aritutako kideek, hainbat ekarpen egin zituzten erremintari. Horiek aintzat hartu eta tresna moldatzea izan zen eman zen hurrengo pausoa, esku artean duzuen tresna sortzera iritsi arte.

Sin Canter metodologia albo batera utzita, azken tresna honen diseinuan oso presente izan du UEMAK Udalsarea 21ek argitaratutako lan-koaderno bat: *“Osasuna eta Hiri Garapen Jasangarria. Tokiko hirigintza-jarduerak osasunean zer eragin daukaten aztertzeko gida praktikoa”*. Bertan osasunean eragina duten hainbat faktore aztertzen dira, hirigintza-proiektu eta -ekintzek horietan duten inpaktua azalerratu eta ondorio posibleak aztertuz. Kasu honetan, euskararen ezagutza eta erabileran eragina duten faktoreak zerrendatu dira eta kaltea gutxitzeko funtsezko alderdien bilduma egin da, ondoren, neurri zuzentzaileak proposatzeko baliagarriak direnak.

Horrez gain, tresnari objetibotasuna emateko asmoz, hauskortasun indizea eta euskararen ezagutzaren proiektzio indizea uztartzen dituen bilakaera indize sintetikoa ere sortu da. Dena dela, hizkuntzaren hainbat alderdi objetiboki aztertzeke zailtasunak zeudela ikusita, eragin linguistikoaren galdetegi ere gehitu zaio tresnari eta galdetegi horren bidez, eraginaren intentsitatearen indizea kalkulatzeko formula sortu da.

Bukatzeko, garbi esan behar da, tresna hau orain arte egindako bide baten emaitza izan dela; baina horrek ez du esan nahi zerbait itxia denik. Unean uneko beharren arabera moldaketak izan ditzakeen tresna da honakoa.

2. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOAREN XEDEA

Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea da egitasmo honen helburu nagusia. Horrez gain, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurea hartzeko neurriak hartzea ere bai.

Xede horretan, elkar hartuta joan beharko dute ikuspegi teknikoak, politikoak, juridikoak eta sozialak. Eragin linguistikoa ebaluatzeko tresna sortze hutsak ez baitu tresnaren bidez lortu nahi dena lortzeko biderik emango. Eragin linguistikoaren ebaluazioak adostasun politikoak, babes juridikoa eta sozioala ezinbestekoak ditu, benetan, horren helburuz proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek euskarari kalterik ez egitea lortuko badugu.

3. PRINTZIPIO, KONTSIDERAZIO OROKORRAK

3.1. Zeharkakotasuna

ELERen aplikazioak lehendik ere bistakoa zena, baina behar beste mahai gaineratu ez zen ebidentzia jarri du guztion begien bistan: hizkuntza-politikek erabateko zeharkakotasuna dute. Arnasguneen bilakaerak argi erakusten du, lurraldearen antolaketa-mailan garatutako politikek eta garapen teknologikoak eremu horietako hizkuntza-politikatzat hartu diren politikek baino eragin dezente nabarmenagoa izan dutela. Esaten genuen eta esan dugu, harreman sozial guztietan hizkuntza presente dagoen neurrian, ez dagoela politika publikorik hizkuntza-erabileran eragitetik at. Beti, hiztun batzuen edo beste batzuegan, onerako edo txarrerako, eragiten dute politika

publikoek. Gauzak horrela, hizkuntza-politikaren paradigma moldatu eta politikaren sail baten gisa ulertu beharrean, politikan oro har integratu beharreko ikuspegi gisa ulertu beharko litzateke. Bai norabide horizontalean, arlo edo departamentu desberdinetan; bai eta norabide bertikalean, Toki Administrazioetik Administrazio Nagusiraino. Horrek politika guztiek dakarten hizkuntza-errealitatearen bilakaera aintzat hartzetik, sakoneko aldaketak ekarri beharko lituzke.

3.2. Zuhurtzia eta prebentzioa

Edozein proiektu edo neurri politikoaren aurrean beraz, zuhurtziaren eta prebentzioaren printzipioak ezartzea proposatzen da. Zuhurtziaren ikuspegitik, dena delako proiektu edo politikak hizkuntzarengan eragina izango lukeen zalantza izanez gero, gaia tentuz aztertzea eskatzen da. Euskararen normalizaziorako kaltegarriak izan daitezkeen ondorioak izango balute beraz, horiek saihesteko prebentzio neurriak hartzea jo beharko litzateke. Ulertuta, prebentzioa beti dela egokiagoa, kostuen eta emaitzen aldetik, kaltea egin ondoren, neurri aringarriak hartzea baino. Hortaz, neurri aringarriak soilik bestelako aukerarik geratzen ez den kasuetarako proposatuko lirateke.

3.3. Lurralde-antolaketan hizkuntzen antolaketa aintzat hartzea

Aipatu den bezala, lurralde-antolaketak hizkuntza-normalizazioan duen eragina berebizikoa da. Aspaldi egiaztatu genuen, norbanakoak euskalduntzeaz gain, espazioak (geografikoa, zein funtzionalak) euskalduntzea ezinbestekoa dela, hizkuntza normalizatuko bada. Gauzak horrela, errepideen, hezeguneen, kultura ondarearen, bizikleta bideen,... eta beste hainbat gairen inguruan egiten den bezalaxe, hizkuntzen bilakaera geografikoa eta funtzionala planifikatu eta egoki antolatzeko neurriak hartu beharko lirateke. Horretarako, Lurralde Antolamendurako Gidalerro edo arau orokorretatik hasi eta lurralde-antolaketako gainerako oinarrietan hizkuntzaren antolaketa aintzat hartu beharko litzateke. Horrekin batera, Hizkuntzen Lurralde Plan Sektoriala garatu beharko litzateke. Horrela, sailkatuta geratu beharko lirateke eremu desberdinak (arnasguneak, arnasmune izateko eremu potentzialak, berreskurapen intentsiboko eremuak (hiriburuak),...) euren izaera soziolinguistikoaren arabera. Modu berean, bestelako lurralde antolaketako proposamenekin uztartzeko eta bateragarri egiteko modua egin beharko litzateke (arnasguneen garapen sozioekonomikoari dagokionez, adibidez).

3.4. Arnasguneen kategorizazioa

Azken urteotan aski onartutzat eman da hizkuntza normalizazio prozesuetan arnasmuneei berebiziko garrantzia dutela. Hori aintzat hartuta, arnasmunetzat jo genitzakeen eremu geografiko eta funtzionalak (herriak, eskualdeak, enpresak, kirol taldeak...) identifikatzea eta modu horretan kategorizatzea beharrezko da. Kategorizazio horrek, balio juridiko-politikoak izanik, arnasmuneei eragina duten proiektuen eta politikaren inguruan neurriak edo irizpideak ezartzea ahalbidetuko luke, eremu horien zaintza eta hedapena erraztuz.

3.5. Arnasguneen trataera berezia

Aurreko printzipioari jarraiki, ezinbestekoa da arnagunetzat jo diren eremuei trataera berezia ematea. Horrek esan nahi izan beharko luke, herri horien garapen sozioekonomikoa eta soziokulturala bermatzeko, oinarrizko zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko erraztasunak ematea. Horrela, herri tamainaren edo bestelako irizpideen arabera, zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko ezartzen diren zenbait muga malgutu beharko lirateke herri horietarako. Modu horretan, arnagune izateko bidean diren bestelako herriei ere urrats berriak eman eta arnagune izaera eskuratzeko pizgarria eskainiz. Gisa honetako neurriak izan litezke: garraio publikoko zerbitzuak ezartzeko erraztasunak, osasun edo hezkuntza zerbitzuak herrian bertan jasotzeko erraztasunak, helduen euskalduntzeko gelak zabaltzeko erraztasunak,...

3.6. Arnasguneen eskualde-buruak

Aurreko printzipioak ez du baztertzen, arnaguneen izaera aintzat hartuta, eurak dauden eskualdeetan, arnaguneetako herritarrek hainbat zerbitzu jasotzeko eskualde-buruetara joan behar izatea. Eskualde-buru hauetako zerbitzu horietan, arnaguneetan aplikatzen diren hizkuntza-irizpideei eustera jo beharko litzateke. Horrekin batera, eremu horiek arnaguneen hedapenerako eremutzat hartu eta normalizazio-prozesu intentsiboak garatu beharko lirateke, albait arinen arnagune izatera hel daitezten.

4. ARAUDIAREN EDUKIAK

Egitasmo honen helburu nagusia da herri erakundeen esku-hartzeek udalerrri euskaldunetako euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikustea eta neurtzea, eta, balizko kalteak neurri zuzentzaileen bidez zuzentzea edota murriztea. Hori guztia lortze bidean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak prebentzioaren ikuspegia administrazioen jardunean txertatuko duen arau egitasmo bat zehaztuko dute, lankidetzan, eta bakoitzak bere eraginpeko esparruetan ezarriko du.

Araudiaren oinarrian egongo den sistemak honako puntuak jasoko ditu:

- Administrazioen jardueren inpaktu linguistikoak neurtuko dituen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE).
- Balizko kalte horiek saihestu edo murrizteko neurri zuzentzaileak eta horien ezarpenaren segimendua.

Bestalde, proiektu honetan ardatz gisa erabiltzen den eragin linguistikoaren kontzeptua definizio honen baitan zedarrizten da:

Eragin linguistikoaren definizioa:

Proiektu edo jarduera batek eremu jakin batean sortzen duen egoera soziolinguistikoaren aldaketa. Eragin linguistikoa hizkuntza batentzat, positiboa, negatiboa edo neutroa izan daiteke.

5. EGITASMOAREN IRISMENA

Arau honen aplikazio eremua, bereziki, euskararen arnasmune diren herri euskaldunak dira, helburua izanik egoera soziolinguistiko onean dauden eremuak babestea.

Hala ere, gainerako eremuetan ere aplikatu ahal izango litzateke, bereziki egoera soziolinguistikoan aurrerapausoak ematen ari diren eremuetan, horrela erabakiz gero.

Hori jakinik, ondorengo puntuetan zehazten dira Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren irismenak kontuan hartu beharko dituen hainbat esparru:

- Zein kasutan aplikatu:
 - Lehendik abian diren proiektuak eta jarduerak.
 - Aurrerantzean egingo diren proiektuak eta jarduerak.
- Eragin aldiak:
 - Proiektuaren jarduerak berak eragiten duena.
 - Geratzen den proiektuaren edo jardueraren eragina.
- Jardueraren eragileak:
 - Eragile pribatuen egitasmoak: norbanakoen eta enpresen jarduerak, produktuak eta zerbitzuak.
 - Eragile publikoen egitasmoak: arauak, jarduerak, plangintzak, diru-laguntzak... Proiektu bakoitzean instituzio bakoitzaren eskumenaren arabera: udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza, estatua...
- Jarduera/proiektu motak:
 - Etxebizitza, hirigintza.
 - Jarduera sozioekonomikoa, enplegua.
 - Ekipamenduak (hezkuntza, osasungintza), merkataritza eta aisialdia.
 - Espazio publikoa (lurraldearen antolamendua, eraikinen kokapena...).
 - Jarduera soziokulturala.

6. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA

- I. Egitasmoa eta garatuko den tokiaren testuingurua aztertu
- II. Proiektuak hizkuntza txostena behar duen zehazteko galdetegi laburra bete eta baiezkotan jarraitu beharreko urratsak zeintzuk izango diren zehaztu.
- III. Proiektu/jardueren eragin linguistikoaren indizea kalkulatu, hala baldin badagokio.
- IV. Eragin linguistikoaren ebaluazioaren galdetegi zehatza bete
- V. Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete eta hobetzeko neurriak identifikatu
- VI. Neurri zuzentzaileak proposatu
- VII. Txostena prestatu

I. Egitasmoa bera eta garatuko den tokiaren testuingurua aztertu

Batetik, egitasmoaren/proiektuaren deskribapena jasoko da atal honetan. Proiektuaren **xedea, bultzatzaileak, hartzaileak, esku hartze nagusien deskribapena, garatuko den tokia, proiektuaren egoerari** buruzko informazioa jasoko da.

Eragin linguistikoaren balorazioak jaso aurretik, eragin eremuari dagokion informazio garrantzitsua aztertzeak ondorengo lana erraztuko digu. Prozesu horretan, kontuan hartzekoak diren datuak honakoak dira: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak. Kasuan kasu aztertu beharko da zein informazio jasotzea den egokiena.

Demografikoak: biztanle kopuruaren bilakaera, haur-indizea, zahartze-indizea, atzerritar indizea.

Ekipamenduak eta azpiegiturak: kultur-etxea, anbulatorioa, ikastetxeak, parkeak, bidegorriak, aisialdirako guneak, zinema, txokoak, gazteen lonjak.

Adierazle linguistikoak: euskararen gaitasuna, erabilera, etxeko hizkuntza, lehen hizkuntza, adinaren, generoaren eta jaioterriaren arabera.

Euskararen inguruko egituraketa eta baliabideak: UEMA, euskara planak, euskara zerbitzuak, araututako irakaskuntza, komunikazio hizkuntza.

Sozioekonomikoak: tokiko ekonomia jarduerak, langabezia tasa.

II. Galdetegi laburra erantzun¹

Edozein proiektuk edo egitasmok udalerrri bateko egoera soziolinguiskoan eragingo duen edo ez ondorioztatzeko balioko duen galdetegia da. Galdetegi sinplea da, galderei BAI edo EZ erantzuna eskatzen duena. Bai erantzundako kasuetan aldaketa zerk eragingo duen azaldu beharko da.

Aldaketa lau faktore nagusik eragingo dute: biztanle kopurua ugaritzeak edo bisitari/erabiltzaile/langile kopurua ugaritzeak, hizkuntza politika aldatzeak edota tokiko harreman sareak aldatzeak.

Galdetegi laburra betetzearekin batera, hurrengo urratsak zeintzuk izango diren zahaztu beharko da.

III. Bilakaera indizea kalkulatzeko, hala badin badagokio²

Biztanleria eta bisitarien kopurua aldatuko den kasuetan bete beharko da urrats hau. Biztanleriaren Proiekzio Indizea, Euskararen Proiekzio Indizea eta tokiaren Hauskortasun Indizea kalkulatu dira.

IV. Eragin linguistikoaren galdetegi bete eta eragin linguistikoaren intentsitatea kalkulatzeko³

Galdetegi honek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten lagunduko du.

Hizkuntzari estu lotutako aldagaien inguruan galdetuko da:

- **Komunitatearen kutur eta gizarte bizitzan**
- **Biztanleriaren/bisitarien euskararen ezagutzan**
- **Biztanleen/bisitarien euskararen erabileran**
- **Jardueren/zerbitzuen komunikazioan**
- **Eragin eremuaren hizkuntza-paisaia**
- **Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza – erabileran**

Hona hemen, aurreko puntu horiek banan-banan sakonduta:

1 Ikus 1go eranskina

2 Ikus 2. eranskina

3 Ikus 3. eranskina

Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza: proiektua edo jarduera egingo den tokiko komunitatearen (biztanleak, erabiltzaileak, langileak...) ohiturak dira: aisialdia dela, espresio kulturalak direla, harremanak izateko moduak, herritik kanpora joateko joerak... Bereziki, ahozko komunikazioan eragina izan dezaketen ohiturak dira.

Euskararen ezagutza: proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitatearen euskararen ezagutza tasa aldatuko ote den aztertu nahi da. Aldaketa hori biztanle, bisitari, erabiltzaile edota langile berrien eraginez gerta daiteke. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: etxebizitzak ugaritzea, bide azpiegiturak aldatzea, zerbitzuak ugaritzea, lantegiak eraikitzea, turismoa sustatzea...

Euskararen erabilera: proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitatearen (biztanle, erabiltzaile, langile...) euskararen erabilera tasa aldatuko ote den aztertu nahi da. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: biztanleak, bisitariak, erabiltzaileak, langileak edo bestelako jende-multzoren bat ugaritzea; eskainiko diren zerbitzuetan euskara aintzat ez hartzea.

Komunikazioak: kanpora begirako zerbitzuen/adierazpenen komunikazioetan hizkuntzari dagokionez, nola jokatu den aztertuko da eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen. Komunikazio horiek izan daitezke ahozkoak zein idatzizkoak.

Hizkuntza paisaia: paisaia horretan ikus edo entzun dezakegunak osatzen du hizkuntza paisaia: horiek idatziak edo ahozkoak izan daitezke. Idatziak: errotuluak (eraikin barrukoak edo kanpokoak izan daitezke), kartelak, seinaleak, webgunea... Ahozkoak: bozgorailuetatik entzuten duguna, musika,...

Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza: zerbitzuetan edo jardueretan euskarazko eskaintzak izango duen presentzia aztertu nahi da eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen.

V. Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia betetzea⁴

Edozein proiektu edota jarduerak jaso beharreko funtsezko alderdiak biltzen dituen galdetegia da. Galdetegiaren bidez, ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatuko da. Horri esker, neurrien zerrrenda bat egin ahal izango da, bukaerako txostenean kontuan har daitezten.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatuta daude:

- **Proiektuaren/jardueraren izaerari lotutakoak:** etxebizitzaren tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa eredua eta gararen sozioekonomiko zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak al diren aztertu nahi du funtsezko alderdi honek.
- **Proiektuaren/jardueraren dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak:** proiektuak ekarriko duen hazkundea, berau garatzeko behar den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak al diren jasotzen du.

- **Proiektuaren/jardueraren lekukotzeari lotutakoak:** proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertu nahi da alderdi honetan.
 - **Proiektua/jarduera garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak:** proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoa, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezarri al diren jaso nahi da.
 - **Proiektuaren/jardueraren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak):** garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako jarduera edo proiektu osagarriak aurreikusi al diren aztertu nahi da.
- ...

Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude:

- 1. Etxebizitza**
- 2. Jarduera ekonomikoa, enplegua**
- 3. Ekipamenduak**
- 4. Espazio libreak**
- 5. Jarduera soziokulturala.**

Garatuko den jarduera/proiektuaren arabera beteko da galdetegia, horietako jarduera bakarra garatuko bada, demagun, etxebizitzak soilik eraikiko direla, etxebizitzari dagokion galdetegiaren zatia soilik beteko da. Baina etxebizitza, ekipamenduak eta espazio libreak eraikiko badira, hirurei dagokien galdetegia beteko da.

Hizkuntza irizpideei eta jarduera osagarri/aringarriei lotutako alderdiak orokorreran galdetuko dira, jarduera edozein dela ere.

VI.Neurri zuzentzaileak proposatzea⁵

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena egiten denean, zein funtsezko alderdiei buruzko azterketa egiten denean, azaldu diren eragin posible horiei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko puntua izango da honakoa. Horretarako, eranskinetan proposatzen den neurri zuzentzaileen karta kontuan hartzea gomendagarria izango da.

Eranskinetan neurri zuzentzaileen karta-eredua dago eskuragarri. Proposatzen diren neurriak positiboak eta sustapenera bideratutakoak dira. Hots, neurri baztergarriak baino, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioetan oinarritutako neurriak lantzen egin behar da ahalegina. Adibidez: erabilera eta ezagutza sustatuko duten hirigintza ereduak, hitzarmenak, harrera-planak, informazio/sentsibilizazioa, aholkularitza, diru laguntzak, sustapena... Izan ere, gogoratu behar da neurri zuzentzaileen karta hau eredua dela, eta tokian tokiko errealitateari erantzun doitua emateko bertako errealitatera egokitu beharko direla.

VII. Eragin linguistikoaren txostena

Behin galdetegiak beteta eta eragin linguistikoaren indizea kalkulatuta, proiektuaren sustatzaileak eragin linguistikoaren txostena idatziko du. Txostenak bost atal nagusi izango ditu: sarrera, proiektua bera, ebaluazio prozesua, eraginaren azalpena, ondorioak, eta, azkenik, proposaturiko neurri zuzentzaileak.

0. Sarrera:

Proiektuaren azalpen orokorra.

1. Proiektuaren deskribapena

Zein azpiegitura eraikiko da?/ Zein zerbitzu/jarduera eskainiko da?

Zenbat denbora beharko da proiektua burutzeko?

Zein hedadura izango du?

Zein onura ekarriko dio inguruneari?

Tokiko beharrei erantzuten al dio proiektuak?

Zein arrazoi dela medio erabaki da proiektua egitea?

2. Ebaluazio prozesua:

Ebaluazio prozesua zein izan den azalduko da.

Balorazio batzordean parte hartu duten kideen deskribapena.

Egindako ebaluazio-lanaren ibilbidea.

Jaso diren datuak zeintzuk izan diren.

Erabilitako metodologia.

3. Eragin linguistikoa:

Atal honetan, adierazleak oinarri hartuta, proiektuaren eragina zein izango den azaldu beharko da. Modu horretan, aldagai horietan izango diren aldaketan ondorioz, eremu horretan zer gerta daitekeen aurreikusi beharko da. Batez ere, egoera soziolinguistikoa zertan alda daitekeen zehaztu behar da.

Besteak beste, aurreikusita dagoen proiektuak hizkuntzaren erabilera eta tokiko ekimenak sustatzeko sortuko dituen aukerak zeintzuk diren aztertzea ere bada atal honen helburua, beraz, txostenak gai horri ere heldu beharko dio.

4. Ondorioak:

Aztertutako adierazleen indizeak eta informazio osagarria eskaintzen diguten indizeak jasota,

ondorio orokorrak aterako dira:

- Eragin mailaren balorazioa.
- Adierazle kritikorik badagoen.
- Lehentasunez neurri zuzentzaileak non jarri beharko liratekeen, eta abar.

7. JARRAIPEN SISTEMA

7.1. Jarraipen batzordeko kideak.

Jarduerak hizkuntza-txostena beharrezkoa badu, jarraipen batzordea prozesuaren hasieratik bertatik osatuko da.

Proiektuaren ezaugarrien arabera, batzordea gutxienez kide hauek osatzea komeni da:

- Udal ordezkariak eta gaiarekin zerikusia duten udal langileak edo adituak.
- Herritarrak.
- Gizarte eragileak (ikastetxeak, euskara eta kultura elkarteak, merkatariak,...)
- Inplikaturako beste eragile batzuk.

7.2. Jarraipen batzordearen funtzionamendua.

Jarraipen batzordeak jasoko du jarduera abian jarri nahi duen enpresa, erakunde edo norbanakoak prestatutako hizkuntza-txostena. Hizkuntza txosten horretan agertuko da jarduerak eragingo duen ingurunearen gaur egungo errealitate soziolinguistikoaren diagnostikoa, eta jarduerak egoera horretan izan dezakeen eragina.

Hizkuntza-txostena oinarri hartuta, jarraipen batzordeak erabakiko du proiektua bideragarria den bere horretan edo neurri zuzentzaileak proposatu behar diren.

Neurri zuzentzaileak proposatzen badira, horiek betetzeko epeak ere finkatuko dira, aldi berean. Epe horiek kontuan hartuta, jarraipena egiteko fitxak beteko dira, eta fitxetan azaldutako datuak oinarri hartuta, jarraipen batzordeak aldeko txostena emango dio proiektuari, beste hobekuntza neurri batzuk proposatuko ditu edo kontrako txostena eman, eta egoki irizten dion prozedura hasiko du, proiektua bertan behera uzteko, horretarako aukerarik bada. Azken kasu horretan, gainera, aztertu beharko du zigor-prozedurarik abian jarriko duen, sortutako kalteen ordain gisa.

7.3. Arauak eta proiektuak garatzeko plangintza prozesuan kontuan hartu beharreko hainbat alderdi:

- Estatistika datuak eta ikerketa kualitatiboak: tokiko hizkuntza komunitatearen egoera ezagutu (datu soziolinguistikoak, EAS, EDB...).
- Herritarren parte-hartzea (partaidetza prozesua, kontsulta publikoa):

- Elkarlaneko plangintza edo plangintza kooperatiboa.
- Erabakiak hartzeko garaian herritarren ordezkariak.
- Oinarrizko hirigintza teknikan (lurren sailkapena, zonifikazioa eta arloz arloko ekintzak) ikuspegi berriak txertatzea: merkatu hirigintzatik gizarte hirigintzara. Hirigintza parte-hartzailea.
- Gastu publikoa eta inbertsioa: neurri zuzentzaileengatikoa gastua, adibidez.
- Ebaluazioa eta jarraipena: Araudiaren ezarpenaren jarraipenerako sistema zehaztu: jarraipen instituzionala eta jarraipen soziala.



ERANSKINAK

LEHEN ERANSKINA:

GALDETEGI LABURRA (II. urratsa)

Datozen galdera hauetakoren baten erantzuna baiezkoa bada, segidan hurrengo urratsera pasatu beharko da.

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
1. Proiektuak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...)		
2. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)		
3. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko hizkuntza politikan? (erakunde baten izaera aldatuko delako, eskola baten hizkuntza eredu aldatuko delako...)		
4. Proiektuak/egitasmoak izango al du eraginik tokiko hiztun komunitatearen harreman sareetan? (ludoteka berria egingo delako, herrian parkerik ez eta parke bat eraikiko delako, eskola txiki bat irekiko delako...)		

Goiko galderak ondoko lau kasuri lotuta daude. BAI erantzundako galdera bakoitzak urrats zehatz batzuk egitea eskatuko du, jarraian daude eman beharreko pausoen deskribapena.

1go kasua (tokiko biztanleria haztea):

1go galderari baiezkoa erantzunez gero egin beharreko urratsak:

II: bilakaera indizea kalkulatu (biztanleriaren hazkundearen indizea, euskararen proiektzio indizea eta hauskortasun indizea)

III: eragin linguistikoaren ebaluazioaren galdetegi zehatza bete eta indizea kalkulatu

IV: funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete eta hobetzeko neurriak identifikatu

V: neurri zuzentzaileak proposatu

VI: ebaluazio txostena idatzi

2. kasua (tokiko bisitari kopurua haztea):

2. galderari baiezkoa erantzunez gero egin beharreko hurrengo urratsak:

II: bilakaera indizea kalkulatu (bisitariaren hazkundearen indizea, euskararen proiektzio indizea eta hauskortasun indizea)

III: eragin linguistikoaren ebaluazioaren galdetegi zehatza bete eta indizea kalkulatu

IV: funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete eta hobetzeko neurriak identifikatu

V: neurri zuzentzaileak proposatu

VI: ebaluazio txostena idatzi

3. kasua (tokiko hizkuntza politika aldatzea) eta 4. kasua (tokiko hiztun komunitatearen harreman sareak aldatzea):

Zuzenean III. urratsera pasako da: eragin linguistikoaren ebaluazioaren galdetegi zehatza bete eta eragin linguistikoaren indizea kalkulatu.

IV: funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete eta hobetzeko neurriak identifikatu

V: neurri zuzentzaileak proposatu

VI: ebaluazio txostena idatzi

BIGARREN ERANSKINA

BILAKAERA INDIZEA (III. urratsa)

1go KASUA (biztanle kopurua aldatzea)

Biztanle kopurua aldatuko dela aurreikusiz gero, hurrengo pausoa izango da bilakaera indizea kalkulatzeko. Indize sintetiko hau beste hiru indizeren konbinaziotik sortutakoa da: biztanleriaren hazkundearen indizea, euskararen proiektzioaren indizea eta hauskortasun indizea.

- **Biztanleriaren Hazkunde Indizea:** proiektuaren ondorioz, udalerrian biztanle kopurua zenbatean hasiko den aztertzen du indizeak. Etxebizitza berri bakoitzeko hiru biztanle etor daitezkeela kalkulatu da.

BHI = eraikiko den etxebizitza kopurua x 3

- **Euskararen Proiektzio indizea** (bukaeran azalpen taula): indize honek bizitegi-asetamendu berriek euskararen ezagutzan izango duen eragina kalkulatu du. Gehiengoan hipotesi batetik abiatzen da, hau da, planean aurreikusitako bizitegi-asetamendu kopuru handiena beteko dela da hipotesia.
- **Hauskortasun indizea** (bukaeran azalpen taula): indize honen helburua da edozein esku-hartzek eragin eremuaren egoera soziolinguistikoa zer-nolako neurrian hauts dezakeen neurtzea.

Indizea aldagai hauez osatuta dago: biztanle kopurua, euskaldunen ehunekoa, euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen ehunekoa, etxean euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa, UEMAko udalerrak eta Euskara sustatzeko dauden planak e.a. Aldagai bakoitzaren eskala egin da, eta tarte bakoitzari puntuazio bat eman zaio, bukaerako taulan zehazten den eran.

HI = $\left[\frac{(\text{etxeko hizkuntza} \times 2) + \text{euskaldunen ehunekoa} + \text{lehen hizkuntza}}{3} \right] + (\text{biztanle kopurua} + \text{euskararen babesa})$

- **Bilakaera indizea:** EPI + HIren eragina

HIren eraginaren balioa:

HI	HIren eragina
2-5,9 hauskortasun txikia	3
6-9,9 hauskortasun ertaina	2
10-13,9 hauskortasun handia	1
14-18 hauskortasun oso handia	0

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztarketatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzaren inpaktuari aurre egiteko; horregatik, euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizeari ez zaio punturik gehituko. Esaterako, herri baten euskararen ezagutzaren bilakaera -%8-koa bada, eta hauskortasun indizearen eragina 0, bukaerako emaitza -%8 izango da. Aitzitik, hauskortasun indizea txikia denean, inpaktuari aurre egiteko gaitasun handiagoa izango du (euskararen inguruko egitura baduelako, herri handi samarra delako, euskaldunen kopurua ez delako horren altua...). Adibidez, bilakaera -%7koa bada, eta hauskortasun indizearen eragina 2, emaitza -%5 izango da.

IZAERA	ERAGINA	BALIOA GUZTIRA
Onuragarriak	Erabat positiboa	$10 <$
	Positiboa	$3 < x < 10$
	Nahiko positiboa	$0 < x < 3$
Neutroa	Ez du eraginik	0
Kaltegarriak	Garrantzia gutxikoa	$0 < x < -2$
	Moderatua	$-2 < x < -7$
	Larria	$-7 < x < -9$
	Oso larria	$-10 <$

Oharra: hizkuntza galera aurreikusten bada, emaitza ezingo da inoiz positiboa izan, nahiz eta hauskortasun indizearen eragina batuta emaitza positiboa ateratu. Kasu horietan eraginik ez duela esango dugu. Demagun galera -0,6koa izango dela eta herriaren hauskortasun indizearen eragina 2 dela, bada emaitza neutroa dela esango dugu.

2. KASUA (bisitari/erabiltzaile kopurua aldatzea)

- **Bisitarien Hazkunde Indizea:** proiektuaren ondorioz, udalerrira datorren bisitarien kopurua zenbatean hasiko den aztertuko da (urteko hainbat garai har daitezke erreferentzia moduan). Proiektuan zehaztuta dagoen kasuetan bakarrik izango da erreal, gainerakoan estimazioa egingo da.

BiHI = proiektuan zehaztutakoa (edo estimazioa)

- **Hauskortasun indizea:** indize honen helburua da edozein esku-hartzek eragin eremuaren egoera soziolinguistikoa zer-nolako neurrian hauts dezakeen neurtzea.

Indizea aldagai hauez osatuta dago: biztanle kopurua, euskaldunen ehunekoa, euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen ehunekoa, etxean euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa, UEMako udalerriak eta Euskara sustatzeko dauden planak e.a. Aldagai bakoitzaren eskala egin da, eta tarte bakoitzari puntuazio bat eman zaio, eranskineko taulan zehazten den eran.

HI= $(((\text{etxeko hizkuntza} \times 2) + \text{euskaldunen ehunekoa} + \text{lehen hizkuntza}) / 3) + (\text{biztanle kopurua} + \text{euskararen babesa})$

- **Bilakaera indizea:** EPI + HIren eragina

HIren eragina

HI	HIren eragina
2-5,9 hauskortasun txikia	3
6-9,9 hauskortasun ertaina	2
10-13,9 hauskortasun handia	1
14-18 hauskortasun oso handia	0

IZAERA	ERAGINA	BALIOA GUZTIRA
Onuragarriak	Erabat positiboa	$10 <$
	Positiboa	$3 < x < 10$
	Nahiko positiboa	$0 < x < 3$
Neutroa	Ez du eraginik	0
Kaltegarriak	Garrantzia gutxikoa	$0 < x < -2$
	Moderatua	$-2 < x < -7$
	Larria	$-7 < x < -10$
	Oso Larria	$-10 <$

3. eta 4. KASUAK

Ez da indizeen kalkulurik egingo. Zuzenean, hurrengo urratsera egingo da salto.

Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea kalkulatzeko argibideak:

Indize honek bizitegi-asantamendu berriek edota bisitarien euskararen ezagutzan izango duen eragina kalkulatu du. Gehiengoan hipotesi batetik abiatzen da, hau da, planean aurreikusitako bizitegi-asantamendu kopuru handiena beteko dela da hipotesia. Bisitarien kasuan, bisitari kopuru handieneko egunaren estimazioa hartuko da kontuan.

Adibidez, demagun Abaltzisketan 12 etxebizitza egitea aurreikusten dela.

Udalbarrutia	Bizitegi berrien kopurua (etxebizitzak)	Biztanleak (biztanleak x 3)
Abaltzisketa	12	36

Etxebizitza horietara sartuko diren biztanleak egungo migrazio-joeren arabera banatuko dira. Bisitarien kasuan turismo bulegoak eskaintzen dituen datuak hartuko ditugu aintzat.

Adibidez, hona hemen, Abaltzisketako migrazio jatorria:

Biztanle berrien ezagutza	
Tolosaldekoak	%40
Gipuzkoako gainerako lekuetakoak	%20,4
EAEko gainerako lekuetakoak	%1,2
Nafarroakoak	%1,2
Espainia eta atzerria	%37,2
Biztanle berriak	%100

Migrazio horien jatorria elementu erabakitzaileetako bat izango da euskararen ezagutzari dagokionez. Horregatik, jatorri eremu horien ezagutza tasa zein den jasoko ondorengo taulan. Hemen Abaltzisketa migrazio joerak.

Euskararen ezagutza jatorriaren arabera					
	Tolosaldea	Gipuzkoa	Nafarroa	Gainerako EAE	Kanpoko inmigrazioa*
Erdaldunak	%13,2	%33,7	%80,7	%56,8	%98
Pasiboak	%15,8	%16,4	%7,6	%17,8	%1
Euskaldunak	%71	%49,9	%11,7	%25,4	%1

*Estatutik edo atzerritik etorriak

Indize horien bidez, bizitegi-asetamendu berrietako biztanleen edota bisitarien banaketa kalkulatu da, euskararen ezagutzaren arabera. Adibidez:

Udalbarrutia	Biztanle berriak / Bisitariak	Etorritako erdaldunak	Etorritako pasiboak	euskaldun	Etorritako euskaldunak
Abaltzisketa (etxe berriak eraikiz gero)	36	16	4		14

Biztanle euskaldunen ezagutza-tasa kalkulatzeko, kontuan izan behar dira guztizko biztanleria eta migrazio-prozesuaren ondorioz egongo diren biztanle euskaldunak. Adibidez: Abaltzisketako biztanleak guztira 2011n: 306 / biztanle euskaldunak 2011n: 288

Udalbarrutia	Biztanle berriak / ohiko biztanleak+bisitariak	Biztanle euskaldunak / bisitari+biztanleen euskaldunen %	Euskaldunen % Planaren proiektzioaren arabera	Euskaldunen % gaur egun	Bilakaera %
Abaltzisketa (etxe berriak eraikiz gero)	306+36= 342	288+14= 302	88,3	94,1	-5,8

Hauskortasun indizea kalkulatzeko argibideak:

Indizea aldagai hauez osatuta dago: biztanle kopurua, euskaldunen ehunekoa, euskara lehen-hizkuntza duten pertsonen ehunekoa, etxean euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa, UEMAko udalerriak eta EBPN daukatenak. Aldagai bakoitzaren eskala egin da, eta tarte bakoitzari puntuazio bat eman zaio, taula honetan zehazten den bezala:

	ESKALA	BALIOA
Udalerriko biztanle kopurua	500 biztanletik beherea	6
	501 eta 1.000 biztanle bitartean	5
	1.001 eta 3.000 biztanle bitartean	4
	3.001 eta 5.000 biztanle bitartean	3
	5.001 eta 20.000 biztanle bitartean	2
	20.000 biztanletik gora	1
	Euskaldunen ehunekoa	%90etik gora
%90 eta %80 bitartean		5
%80 eta %70 bitartean		4
%70 eta %60 bitartean		3
%60 eta %50 bitartean		2
%50etik behera		1
Lehen hizkuntzaren ehunekoa		%90etik gora
	%90 eta %80 bitartean	5
	%80 eta %70 bitartean	4

	%70 eta %60 bitartean	3
	%60 eta %50 bitartean	2
	%50etik behera	1
Etxeko hizkuntzaren ehunekoak	%90etik gora	6
	%90 eta %80 bitartean	5
	%80 eta %70 bitartean	4
	%70 eta %60 bitartean	3
	%60 eta %50 bitartean	2
	%50etik behera	1
Euskararen inguruko egituraketa	UEMAkoak dira eta EBPN daukate	0
	Edo UEMAkoak dira edo EBPN daukate	2
	Bat ere ez	4

Indizea 2 eta 18 puntu artekoa izan daiteke. Puntuazioaren arabera lau tarte ezarri dira:

- 14 eta 18 punturen artean Hauskortasun oso handia
- 10 eta 13 punturen artean Hauskortasun handia
- 6 eta 9 punturen artean Hauskortasun ertaina
- 2 eta 5 punturen artean Hauskortasun txikia

FORMULA: $\left[\frac{((\text{etxeko hizkuntza} \times 2) + \text{euskaldunak} + \text{lehen hizkuntza})}{3} \right] + (\text{biztanle kopurua} + \text{euskara babesa})$

HIRUGARREN ERANSKINA

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOAREN GALDETEGIA BETETZEA ETA INDIZEA KALKULATZEA (IV. urratsa)

Galdetegi honek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten lagunduko du.

Galdetegia betetzeko argibideak bukaeran aurkituko dituzu.

Baliteke egitasmoak eragin nabarmena izatea (ona edo txarra)

	BAI/EZ	+/-	INTEN	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan					
1.1 Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragina mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					
1.1.2. Eragina hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.2. Eragina proiektua egin eta gero					
1.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
1.4. Eragina etengabekoa izango da					

2. Tokiko euskararen ezagutzan					
2.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
2.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
2.4. Eragina etengabekoa izango da					
3. Tokiko euskararen erabileran					
3.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					
3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
3.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
3.4. Eragina etengabekoa izango da					
4. Hizkuntza paisaia					
4.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					

4.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
4.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
4.4. Eragina etengabekoa izango da					
5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan					
5.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					
5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
5.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
5.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
5.4. Eragina etengabekoa izango da					
6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan					
6.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua gauzatuko duen eragileak soilik sortuko du					
6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektuak zuzenean sortuko duena izango da bereziki?					
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
6.4. Eragina etengabekoa izango da					

GALDETEGIA ERANTZUTEKO ARGIBIDEAK:

+/- zeinuak eragina hizkuntzarentzat onuragarria edo kaltegarria izango den esan nahi du.

Intentsitatea neurtzeko BAXUA/ERTAINA/HANDIA terminoak erabiliko dira. Aldez aurretik kalkulatuta egongo diren indizeak lagungarriak izango dira galdetegi hau betetzeko eta eraginaren intentsitatea baloratzeko.

Galdera nagusiak erantzun baino lehen (grisez daudenak), horri lotuta dauden azpigalderak erantzun beharko dira, izan ere, galdera nagusiaren balioa azpigalderen emaitzen batuketa eginez lortuko da. Galdera nagusiaren intentsitate maila eta balioa neurtzeko, azpigalderen batez bestekoa egingo da, beti ere kontuan izanda azpigaldera batzuen pisua handiagoa izango dela.

Intentsitatea baloratzeko BAXUA/ERTAINA/ALTUA terminoak erabiliko dira eta intentsitate maila bakoitzak balio jakin bat izango du:

INTENTSITATEA:

BAXUA.....1

ERTAINA.....2

HANDIA.....4

BALIOAK kalkulatzeko egin beharreko eragiketak honakoak dira azpigaldera bakoitzaren arabera:

Proiektua egiten ari den artean:

Eragina mugatua..... intentsitatea/2

Eragina hedatua..... intentsitatea X1

Proiektua egin eta gero:

Eragina mugatua..... intentsitatea X2

Eragina hedatua..... intentsitatea X3

Eragina noizbehinkakoa..... intentsitatea X1

Eragina etengabekoa..... intentsitatea X2

Galdera nagusien intentsitate maila baloratzeko ondorengo baremoak hartuko dira kontuan:

INTENTSITATEA	BALIOA
BAXUA	1-16
ERTAINA	16-28
HANDIA	28-38

Eraginaren indize osoa kalkulatzeko galdera nagusien batez bestekoa aterako da, baina kasu honetan ere galdera bakoitzaren pisua ezberdina izango da. Honako formula aplikatu beharko da eraginaren indizea kalkulatu ahal izateko:

Eraginaren intentsitatea: Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza + (ezagutzaX2) + (erabilerax3) + hizkuntza paisaia + komunikazioa + eskaintza

INTENTSITATEA	BALIOA
GARRANTZI GUTXIKOA	1-80
MODERATUA	80-160
LARRIA	160-250
KRITIKOA	250-342

Hizkuntzaren alderdi bakoitzaren azalpena:

Komunitatearen gizarte eta kultura bizitza: proiektua edo jarduera egingo den tokiko komunitatearen (biztanleak, erabiltzaileak, langileak...) ohiturak dira: aisialdia dela, espresio kulturalak direla, harremanak izateko moduak, herritik kanpora joateko joerak... Bereziki, ahozko komunikazioan eragina izan dezaketen ohiturak dira.

Euskararen ezagutza: proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitatearen (biztanle, erabiltzaile, langile...) euskararen ezagutza tasa aldatuko ote den aztertu nahi da. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: etxebizitzak ugaritzea, bide azpiegiturak aldatzea, zerbitzuak ugaritzea, lantegiak eraikitzea...

Euskararen erabilera: proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitatearen (biztanle, erabiltzaile, langile...) euskararen erabilera tasa aldatuko ote den aztertu nahi da. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: biztanleak, bisitariak, erabiltzaileak, langileak edo bestelako jendemu-tzoren bat ugaritzea; eskainiko diren zerbitzuetan euskara aintzat ez hartzea.

Komunikazioak: kanpora begirako zerbitzuen/adierazpenen komunikazioetan hizkuntzari dagokionez nola jokatu den aztertuko da eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen. Komunikazio horiek izan daitezke ahozkoak zein idatzizkoak.

Hizkuntza paisaia: paisaia horretan ikus edo entzun dezakegunak osatzen du hizkuntza paisaia: horiek idatziak edo ahozkoak izan daitezke. Idatziak: errotuluak (eraikin barrukoak edo kanpokoak izan daitezke), kartelak, seinaleak, webgunea... Ahozkoak: bozgorailuetatik entzuten duguna, musika,...

Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza: zerbitzuetan edo jardueretan euskarazko eskaintzak izango duen presentzia aztertu nahi da eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen.

LAUGARREN ERANSKINA

FUNTSEZKO ALDERDIEN EBALUAZIOA (V. urratsa)

Behin hitzun kopuruan eragina izango duela baieztatuta, eta eraginaren indizea kalkulata, proiektu batek jaso beharreko funtsezko alderdiez galdetuko da. Galdetegian euskararen erabilera eta ezagutza zaintzeko, esku hartzearen arabera kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak jaso dira. Funtsezko alderdi horiek proiektuaren eragina saihesten edo murrizten lagunduko dute. Batzuek zuzenean ezagutza eta erabilerari lotutakoak izango dira eta beste batzuk zeharkakoak izango dira, komunitatearen gizarte eta kultura bizitzari zein elkarbizitzari lotuago daudenak. Komunitate bizitza osasuntsu batek erabilera bera hazten lagunduko du. Jarraian duzuen galdetegian funtsezko alderdiak kontuan hartu al diren edo ez jasoko da. Ezetz erantzundako galdera bakoitzak, gai horretan sakontzen jarraitzeko eta hobetu beharrekoari buruzko informazioa jasotzeko balioko du.

HIRI GARAPENARI LOTURIKO FUNTSEZKO ALDERDIAK, ESKU HARTZEAREN ARABERA SAILKATUTA

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera jakiteko adierazle nagusiak biztanle/langile/bisitari/erabiltzaile kopurua edota ohiturak aldatzea izango da. Kopuru hori aldatzea edota bertakoen ohiturak aldatzea eremu horretan egingo diren esku hartzeen eraginez gertatuko da: dela etxebizitzaren eraikuntza, espazio publiko irekiak eraberritzea edo berriak egitea, ekipamenduak eraikitzea, espazio irekien eta ekipamenduen arteko mugikortasuna aldatzea, jarduera ekonomiko berriak sortzea, jarduera soziokultural berriak sustatzea, etab.

Jarduerak, proiektuak garatzerako orduan, hizkuntzaren alderdia ere aintzat hartzea funtsezkoa izango da. Hizkuntzarengan eragina izango duten mugatzaile bakoitzeko hirigintza garapenari zein hizkuntzari estuki loturiko funtsezko alderdiei buruz galdetuko da jarraian dagoen galdetegian. Helburua da, proiektu bat garatzean, funtsezko alderdi horiek zeintzuk diren jabetzea eta ea plangintzak, egitasmoak berak horiek barne biltzen dituen baloratzea. Funtsezko alderdi batzuek ez dute zuzenean euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko, baina bai lagunduko dute komunitatearen gizarte eta kultura bizitza osasuntsuago baten. Izan ere, ezagutza eta erabilerarekin batera, komunitate bizitza osasuntsua izateak, lekuan lekuko hizkuntza-erabilerari eta -ezagutzari eusten lagunduko dio. Eta alderantziz ere gertatzen da, alegia, erabilera indartzeak komunitate bizitza ere indartu dezake.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatu dira: izaera, dimentsioa, lekukotzea, hizkuntza irizpideak, neurri osagarri/aringarriak. Lehenengo hirurak lurralde antolamendu zein hirigintzarekin dute zerikusia eta azken biak hizkuntzaren alderdiei daude lotuta. Alderdi guztiek dute garrantzia, lurralde antolamendu eta hirigintzari lotutako funtsezko alderdiak ezinbestean joan beharko baitute hizkuntzarekin zerikusia duten alderdiei elkarlotuta eragin negatiboa saihestea nahi baldin bada. Izaera, dimentsio eta lekukotzeari buruzko alderdiak esku hartze mota guztietan sartu dira, baina hizkuntzari lotutakoak modu orokorrean galdetzen dira, esku hartze guztietan berdina baitira.

Honakoa da lurralde antolamendu eta hiri garapenari lotutako funtsezko alderdi nagusien zerrenda esku hartzearen arabera sailkatuta:

A. ETXEBIZITZA

Herriaren hazkuntza jasagarria izatea jasotzea

Herritarren integrazioa eta elkarbizitza sustatzen duten etxebizitzak/auzuneak sustatzea

Etxebizitza kopuru altuak aurreikusten direnean eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzea

B. JARDUERA EKONOMIKOA, ENPLEGUA

Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzea

Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzea

Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzea

Tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea

C. EKIPAMENDUAK

Hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzea

Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu egotea eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzea

Kudeaketa publikoa izatea edo hitzarmenak egitea udalekin

Tokiko beharretara egokituriko ekipamenduak izatea aurreikustea

D. ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzea

Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartzea

Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikustea

Ekimenak garrantzi historikoa edota kulturala duten lekuak babestea edo hobetzea

E. JARDUERA SOZIOKULTURALA

Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea

Erabiliko diren logoak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea

Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea

Honakoak dira hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak edozein dela-ere esku hartzea:

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoak, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezartzea

NEURRI OSAGARRI ARINGARRIAK

Garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murriztea bere baitan bestelako jarduera edo proiektu osagarriak aurreikusita

Galdetegiaren bidez ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatu daiteke. Horri esker, neurrien zerrenda bat egin ahal izango da, bukaerako txostenean kontuan har daitezen.

Galderak erantzun hauek emateko prestatuta daude:

BAI: jarduera/proiektuak jardunbide egokia barne hartzen du.

EZ: jarduera/proiektuak ez du jardunbide egokia barne hartzen.

EZ DAGOKIO: ez dagoki edo jarduera/proiektuan ez da aplikatzen.

AZALPENA: erantzuna hobeto azaltzen laguntzeko balio du.

PROIEKTUAREN/JARDUERAREN IZAERARI, DIMENTSIONARI ETA LEKUKOTZEARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK ESKU HARTZEAREN ARABERA SAILKATUTA

ETXEBIZITZA

Etxebizitzak eraikiko diren kasuetan betetzekoa

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNZAN
1.	Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?					Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
2.	Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?					Komunitatearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
3.	Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?					
4.	Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?					

DIMENTSIOA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
5.	Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean?					Euskararen ezagutza-tasa horrenbeste ez jaistea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
6.	Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?					
7.	Etxebizitzaren eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?					Jende etorrera asimilatzeke aukera lortzen da

LEKUKOTZEA

FUNTSEZKO ALDERDIAK				BALORAZIOA		
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
8.	Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan aurreikusten al da?					Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

Eraberritu edo berriak eraikiko diren kasuetan betetzekoa

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDE DIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
9.	Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?					Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta ondorioz, erabilera areagotzen du
10.	Oinezko sareak aurreikusi al dira?					
11.	Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?					
12.	Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?					Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesio eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz
13.	Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?					Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du

DIMENTSIOA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
14.	Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira?					Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
15.	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?					Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta
16.	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?					Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
17.	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispertsatzea aurreikusten al da?					

OINARRIZKO EKIPAMENDUAK

Eraberritu edo berriak eraikiko diren kasuetan betetzekoa

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
18.	Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?					Gizarte bizitza eta kultur bizitza sustatzen du. Herritarren integrazioa ahalbidetzen dute.
19.	Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?					Udalaren hizkuntza irizpideak ezartzen dira
20.	Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da?					Udalarekin hizkuntza irizpideak adosten dira

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
21.	Tokiko beharretara neurritutako ekipamenduak aurreikusi al dira?					Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilera zein ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
22.	Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?					Ekipamenduen erabilera sustatzen du eta, ondorioz, gizarte integrazioa eta erabilera areagotzen du

JARDUERA EKONOMIKOA

Industriguneak, lanpostuak ugarituko direnean betetzeko:

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
23.	Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?					Bertakoei lanean geratzeko aukera eskaintzen die, eta, ondorioz, langileen euskararen ezagutza eta erabilerari modu xumeagoan eragiten dio
24.	Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?					
25.	Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?					
26.	Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?					
27.	Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?					
28.	Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzen al du?l					

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
29.	Tokiko beharretara neurritutako lanpostuak sustatuko al dira?					Tokiko lan beharrei erantzuten die eta aldi berean kanpoko langile kopurua neurritutakoak ezagutza tasari positiboki eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
30.	Enpresa berriak eraikiko badira euskarari dagokionean horren sentikorra ez den gunean izatea aurreikusi al da?					Eraginaren intentsitatea txikitzen du

JARDUERA SOZIOKULTURALA

Kulturarekin, turismoarekin lotura duten ekimenak aurrera eramango diren kasuetan betetzekoa

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
31.	Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea jasoko al du helburuen artean?					Bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak sustatzen ditu eta prestigiatzen ditu
32.	Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatuko al du?					Bertako izaera indartzen, prestigiatzen du
33.	Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea izango al du helburuen artean?					Bertako kultur erreferenteak indartzen ditu

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
34.	Bisitari kopuru jasangarria jasotzea sustatuko al du?					Erabilera eta ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
35.	Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko gunean jasotzea aurreikusten al du?					Intentsitate maila baxuagotzen laguntzen du

HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
36.	Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak...					Egoera soziolinguistikoari kalterik egingo ez diola bermatzen da
37.	Jardueraren/proiektua garatu ondoren inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? Hizkuntza paisaiari eta toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...					

NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		BAI	EZ	EZ DAGOKIO	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
38.	Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integrazioari begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...					Proiektuaren/jardueraren eraginez sortutako kaltea murrizten da

BOSGARREN ERANSKINA

NEURRI ZUZENTZAILEAK (VI. urratsa)

Prebentzio neurrien lanketarako markoa

Eragina zein izan daitekeen aurreikusita eta funtsezko alderdien inguruko azterketa eginda, jasotako informazioarekin, neurri zuzentzaileen proposamena egitea izango da hurrengo eginkizuna.

Hona hemen neurri zuzentzaileak proposatzeko baliagarria izango den taula. Bertan hainbat neurri jasota daude, adibide moduan baliagarriak izan ahal direnak. Neurriak idazterakoan taula hau lagungarri moduan erabiliko da, neurrien lanketa erraztu ahal izateko.

	KOMUNITATEA	EZAGUTZA	ERABILERA	PAISAIA	KOMUNIKAZIOA	ESKAITZA
IZAERA	- Proiektuaren izaera eremu horretarako garapen sozioekonomiko eta soziokulturalera moldatzea. Adibidez, familia bakarreko edo dorre itxurako etxebizitzak beharrean, ingurura egokitutakoak egitea. - Biztanle berrien integratziorako egiturazko neurriak: auzo/etxebizitzaren antolaketa eta egitura biztanle berrien integratziorako moldatu (bertako herritarrekin harremanak garatzeko espazioak,	==	- Biztanle berrien integratziorako egiturazko neurriak: auzo/etxebizitzaren antolaketa eta egitura biztanle berrien integratziorako moldatu (bertako herritarrekin harremanak garatzeko espazioak, gune komunitarioak, etxebizitzaren sarbidea oinezkoen espazioetatik, ...) aurreikusi eta lehentasuna eman.			

DIMENTSIOA (espaziala eta kronologikoa)	gune komunitarioak, etxebizitzaren sarbidea oinezkoen espazioetatik, ...)					
		- Proiektuaren tamaina murriztea (Etxebizitzaren kasuan, auzo/herri/eskualdearen beharretara neurritzea hazkundera.) - Proiektuaren iraupena denbora luzatzea (etxebizitza guztiak aldi berean egin beharrean, fase desberdinetan egitea)	- Proiektuaren tamaina murriztea - Proiektuaren iraupena denboran luzatzea.			
LEKUKOTZEA		- Ezagutzan eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea - Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea	- Erabileran eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea - Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea			
	HIZK. IRIZPIDEAK	- Etxebizitza eskuratzeko bertakoei lehentasuna ematea - Herriko langileei lehentasuna ematea - Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenetsi	- Kontratatuak langileak euskaldunak izatea	- Hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez. - Euskara-planak edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenetsi - Lehen hitzetik euskaraz egitea.	- Pasaia linguistikorako irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz - Bertako toponimia erabili	Komunikazio irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez. Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatu
OSAGARRIAK / ARINGARRIAK	- Herritarren ahaldundze	- Doako euskalduntzea	- Harrera-planak - Mintzapraktika	- Itzulpen zerbitzuak eskaini	- Itzulpen zerbitzuak eskaini	- Irizpideak betetzen ez direnerako isunak

	linguistikoa eta formazioa landu. - Aisialdiko (kirol eta kultur) eskaintza garatzea. - Etorri berrientzat, integraziorako neurriak (hezkuntza,...) eta planak garatzea.	bermatu. - Euskalduntzeko konpromisoa bermatu - Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatu	programa garatua - Ziurtagiria eskaini edo euskara-planak garatu - Sentsibilizazio /motibazio kanpainak	- Irizpideak betetzen ez direnerako isunak	- Irizpideak betetzen ez direnerako isunak	
--	--	---	---	--	--	--